“JOLIN SARIAK” ARAUTZEN DITUEN UDAL-ARAUDIA

Zioen azalpena:

Toki-araubidearen araudiak adierazten duenez, toki-korporazioek dominak, enblemak, kondekorazioak edo ohorezko beste bereizgarri batzuk sortzea erabaki ahal izango dute, meritu bereziak, adierazitako onurak edo aparteko zerbitzuak saritu ahal izateko. Horretarako, Udalbatzak onartu beharreko araudi berezi batean zehaztu behar dira ohoreak eta sariak emateko bete behar diren baldintzak eta irizpideak, eta Udalbatzaren eskumena izango da, halaber, udal-eremuan dominak, enblemak, kondekorazioak edo ohorezko beste bereizgarri batzuk ematea.

Horri dagokionez, Barakaldoko Udalak kultura sustatzeko dituen eskumenak baliatuz, hainbat eremutan gizarte-aintzatespena sustatzeko interesa du; hori guztia, Barakaldoko Elizatearen alde modu nabarmenean lagundu duten pertsonen, enpresen, sozietateen edo kolektiboen jokabidearen edo jardueren ekarpena bereziki azpimarratzeko, eragin nabarmena duten eremuetan garapena sustatzeko asmoz, hala nola gizartean, kirolean, kulturan, euskaran eta udalerriaren garapen jasangarrian. Izan ere, aipatutako eremuak herritarren garapenerako ohiko espazioak dira, eta eragin nabarmena dute edozein udalerritako gizartea aberasteko orduan, kasu honetan Barakaldokoa.

Beraz, beharrezkotzat jotzen da sari bereziei buruzko erregelamendu-izaerako araudia ezartzea, gizarte-aintzatespenean eragina duten sariak emateko. Nolanahi ere, aintzatespen horiek zuzenean lotzen zaizkio udalerriaren beraren kultura eta kultura-jarduerak antolatzeko eta sustatzeko toki-araubidearen arauetan adierazitako udal-eskumenari, eta, beraz, Udalak bere eskumenen esparruan jarduten du.

Azken batean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean araututa ez dauden jarduerak direnez, Araudi honetan jasotako sarien kasuan ezin da lege hori aplikatu.

Dena dela, emakidaren araubideak publizitate, gardentasun, lehia, objektibotasun, berdintasun eta diskriminazio ezaren printzipioak bete beharko ditu, eta, beraz, beharrezkoa da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan aurreikusitako printzipioen araberako arauketa ezartzea, premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioekin bat etorriz.

1. artikulua: Sarien xedea.

Araudi honen xedea da Barakaldoko Elizatearen Herritarren Partaidetzarako Erregelamendu Organikoarekin eta Toki Korporazioen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuarekin bat etorriz arautzea gizarte- kirol- kultura- eta euskara-arloei eta garapen jasangarriari lotutako ohorezko sariak, bai eta “Jolin Saria” izeneko sari berezia ere. Sari horiek honela sailkatzen dira:

Gizarte-eremuan, aurreko urtean edo urteetan, gizarte feministagoa, kohesionatuagoa, integratzaileagoa, bidezkoagoa, berdintasunezkoagoa eta inklusiboagoa lortzearren, gizarte-ongizatearen eta pertsonen bizi-kalitatearen alde etengabe jardun duten pertsona fisiko, juridiko, entitate edo kolektibo guztiei zuzenduta dago aintzatespena, bai eta herritartasun-balio berriak sortzen lagundu dutenei ere. Era berean, kategoria honetan sartzen da Barakaldon lan egiten duten ikastetxe, elkarte edo beste erakunde batzuek hezkuntzaren arloan egindako ekarpenak aitortzea.

Kirol-eremuan, aurreko urtean edo urteetan, kirol-esparruan beren adierazpen guztietan ibilbide jarraitua izan duten eta nabarmendu diren pertsona fisiko, juridiko, entitate edo kolektibo guztiei zuzenduta dago.

Kultura-eremuan, aurreko urtean edo urteetan, kulturaren adierazpen guztietan ibilbide jarraitua izan duten eta nabarmendu diren pertsona fisiko, juridiko, entitate edo kolektibo guztiei zuzenduta dago.

Euskara-eremuan, aurreko urtean edo urteetan, euskararen erabilera sustatzeko edo hedatzeko jardueretan ibilbide jarraitua izan duten eta nabarmendu diren pertsona fisiko, juridiko, entitate edo kolektibo guztiei zuzenduta dago.

Garapen jasangarriaren eremuan, aurreko urtean edo urteetan, hiriko garapen jasangarria sustatzeko ibilbide jarraitua izan duten pertsona fisiko, juridiko, entitate edo kolektibo guztiei zuzenduta dago. Sariak arlo askotatik egindako ekarpenak aintzatetsiko ditu, eta, bereziki, jasangarritasunaren, irisgarritasunaren, ondarea zaintzearen, enplegua sortzearen eta hiriko bizi-kalitatea hobetzearen arlokoak. Era berean, negozioaren bideragarritasun ekonomikoa eta ingurumenaren babesa arrakastaz uztartzen dituzten enpresek ere aukera izango dute.

"JOLIN SARIA" izeneko sariak helburu du gure hiriko enbaxadore eredugarritzat jotzen diren eta etengabe jardun duten pertsona fisiko, juridiko edo erakunde guztien lana aitortzea, hiriarekiko maitasuna erakutsiz eta Barakaldo herriaren irudi positiboa aurkeztuz munduan.

Aipatutako sari guztiak ohorezkoak izango dira soilik, eta udalak sarituen merituen arabera emango ditu sariak.

Araudi honen xedean ez dira sartzen Barakaldoko Udaleko Ohoreei, Merezimenduei eta Zeremonia arauei buruzko Araudiaren aplikazio-eremuan sartzen diren ohorezko sariak eta aintzatespenak.

2. artikulua: Sariei buruzko araubide juridikoa.

Aipatutako kategorietan adierazitako sariak arautzeko araudi honetan xedatutakoa eta honako hauetakoa hartuko da kontuan: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Barakaldoko Elizatearen Herritarren Partaidetzari buruzko Erregelamendu Organikoa, Toki-erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, dagozkien deialdien oinarri arautzaileak, eta administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

3. artikulua: Sarien izaera.

Araudi honetan aipatzen diren sari guztiak ohorezkoak izango dira, eta, beraz, ez dute Araudi honetan araututakoaz bestelako eskubiderik emango, ez eta izaera ekonomikoa duenik ere.

Ohorezko izaerak ez dakar inolako sari ekonomikorik, eta, beraz, ez da dirulaguntzazko saritzat jotzen, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak araututako jarduera-eremutik kanpo dago. Hori guztia, alde batera utzita, aintzatespena ematearekin batera oroitzapenezko elementu/sari bat eman ahal izango da.

4. artikulua: Konfidentzialtasuna eta datuen babesa.

Pertsona fisikoei ematen zaizkienean sariak organo kudeatzaileek egiten duten datuen tratamenduak bermatu beharko du datu pertsonalen babesaren arloan ezarritakoa betetzen dela, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.

5. artikulua: Sariak emateko prozedura.

Sariak ematea horretarako izapidetutako espedientea egin ondoren erabaki beharko da, dagozkion merezimenduak egiaztatzeko.

Horretarako, sariak eman aurretik, dagokion deialdia onartu eta izapidetu beharko da. Deialdi horretan, berariaz zehaztuko dira parte hartzeko oinarri arautzaileak.

Deialdiek publizitate-, gardentasun-, merezimendu- eta parte-hartzaileen gaitasun-printzipioetara egokituko dute emakida-prozedura.

Norgehiagoka-erregimena ezarriz emango dira modalitate bakoitzeko sariak.

6. artikulua: Espedientearen hasiera.

Espedientea dagokion deialdiaren bidez hasiko da. Deialdi hori modu bateratuan egingo da sari-modalitate guztietarako edo batzuetarako.

Alkatetzaren ebazpen bidez onartuko da deialdia. Ebazpen horretan, emakida-espedientea hastea xedatuko da, eta espedientea hasteko eskumena udal-gobernuko beste organo batzuei eskuordetu ahal izango zaie.

Salbuespen gisa, espedientea hasten duen organoak erabaki ahal izango du saririk ez iragartzea kategorietako batean, eta kasu horretan instrukzioa eta ebazpena gainerako kategorietarako baino ez da izango.

Eskumenak direla-eta, sarien xede (1. art.) den eremuan inplikatuta egon daitezkeen udal arloak kontsultatu eta kontuan hartu beharko ditu arlo kudeatzaileak, deialdi-dekretua idatzi aurretik. Horrela, oinarri horiek idazteko ekarpen teknikoak jaso ahalko dira.

7. artikulua: Parte-hartzaileen betekizunak.

Kategoria bakoitzeko sariak emateko deialdietan parte ahal izango dute deialdi bakoitzean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek edo pertsona fisiko edo juridikoen taldeek.

Emantzipatu gabeko adingabeek parte hartzen badute, aitaren, amaren edo legezko tutorearen aldez aurreko baimena beharko dute parte hartu ahal izateko.

Era berean, edozein pertsona fisikok edo juridikok proposatu ahal izango du pertsona fisiko, juridiko, entitate edo kolektibo baten aldeko aintzatespena, eta baztertu egingo da bertako ordezkariak, zuzendaritza-karguak edo erakundeko kideak aurkezteko edo bere burua proposatzeko aukera.

Bestalde, epaimahaiak hautagaitza bat proposatu ahal izango du, betiere epaimahaikideek aho batez onartzen badute, eta kategoria jakin batean hautagaitzarik aurkeztu ez bada, edo, proposatutako kategoriarako aurkeztutako hautagaiek ez dituztela behar adina merezimendu betetzen uste badute.

Edonola ere, parte-hartzaileek erraztu beharko dituzte Barakaldoko Udalak merezimenduak egiaztatzeko egiten dituen jarduketa guztiak.

8. artikulua: Deialdien edukia.

Deialdian zehaztuko dira izangaiek modalitate bakoitzeko sarietarako hautagaitzak aurkezteko behar diren alderdi guztiak, bai eta kategorietan aurkeztutako hautagaitzak baloratzeko behar den guztia eta espedientea izapidetzeko beharrezko guztia ere, harik eta kategoria bakoitzean sariak emateko ebazpena egin arte.

Zehazki, deialdi bakoitzak erreferentzia hauek izango ditu gutxienez:

1. Deialdia egin duen administrazioaren erreferentzia.
2. Espedientearen arlo kudeatzailearen eta instrukzio-egilearen adierazpena.
3. Deialdiaren xede diren sarien kategoriak aipatzea.
4. Parte-hartzaileek bete behar dituzten baldintzak.
5. Epaimahaiaren osaera.
6. Kategoria bakoitzaren balorazio-irizpide orientagarriak.
7. Hautagaitzetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea eta modua.
8. Kategoria bakoitzean hautagaitzek aurkeztu beharreko dokumentazioa.
9. Hautagaitza bakoitzean baloratu daitekeen beste edozein agiri merezimendua egiaztatzen duena, emateko ondorioetarako.
10. Kategoria bakoitzean sariak emateko administrazio-egintzaren bidez prozedura ebazteko eskumena duen organoa aipatzea.
11. Deialdian kategoria bakoitzerako komenigarritzat jotzen den beste edozein alderdi.

9. artikulua: Deialdien publizitatea.

Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, web orrian, egoitza elektronikoan eta lurralde historikoan gehien saltzen den egunkarietako batean argitaratuko da.

Parte hartzeko eskabideak edo hautagaitzak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.

Eskabideak aurkezteko epea dagokion deialdian ezarritakoa izango da.

10. artikulua: Hautagaitzak aurkeztea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluaren arabera harremanak elektronikoki izan behar dituzten subjektuek bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dituzte parte hartzeko eskabideak edo hautagaitzak. Harremanak elektronikoki izatera behartuta ez daudenek, berriz, elektronikoki edo aurrez aurre (Barakaldoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan) aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak, aipatu Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

Proposamenek azalpen-memoria xehatua izan beharko dute, eta bertan zehaztuta agertu beharko dira proposamena egin duenak egokitzat jotzen dituen merezimendu guztiak, aurkezten den kategoria zehatza kontuan hartuta.

Proposamena egin duenak ezin izango du hautagaitza bera aurkeztu kategoria bat baino gehiagorako, eta baldintza hori betetzen ez badute, baztertu egingo dira proposatzaileak aurkeztutako proposamen guztiak.

Parte hartzeko edo hautagaitzak aurkezteko eskabideek ez badituzte deialdian ezarritako baldintzak betetzen edo eskatzen den dokumenturen bat falta bada, 10 egun balioduneko epea emango zaio interesdunari, espedientearen instruktoreak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, zuzenketak egin edo behar diren dokumentuak aurkez ditzan. Halaber, ohartaraziko zaio hori egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela; horretarako, ebazpen bat emango da, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

Pertsona fisikoek ezin izango dute beren hautagaitza proposatu ezein kategoriatarako, eta pertsona juridikoaren legezko ordezkariek ere ez.

11. artikulua: Hautagaitzen balorazioa.

Espedientea sarien deialdiaren bidez hastea erabakitzen duen ebazpenean, modalitate guztietarako hautagaitzak baloratuko dituen epaimahaiaren osaera zehaztuko da, hura osatzen duten pertsonen identifikazio zehatzaren bidez.

Epaimahaiburuak, lau kidek eta idazkariak (hitza izango du, baina botorik ez) osatuko dute epaimahaia.

Epaimahaiburua: alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotzia. Kalitatezko botoa izango du berdinketa gertatuz gero.

Kideak: sarien xede diren gaietan ospe handia duten teknikariak edo profesionalak.

Idazkaria: korporazioko funtzionario bat.

Epaimahaiaren bilkurak baliozkotzat joko dira, eta quorum nahikoa izango dute, epaimahaiburuak egindako deialdian kideen gehiengoak parte hartzen badu, idazkaria zenbatu gabe ondorio horietarako, eta betiere epaimahaiburua eta idazkaria bertan badaude.

Epaimahaiko kideek ez dute esku hartuko urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-kausaren bat gertatzen denean. Era berean, interesdunek epaimahaikideen errekusazioa sustatu ahal izango dute, aipatutako legean ezarritakoaren arabera aurreikusitako kasuetan.

Araudiaren arabera, epaimahaiko kideen gehiengo soilak hartu ahal izango ditu erabakiak, salbu eta kategoria jakin batean hautagaitzarik aurkezten ez bada eta epaimahaiak berak proposatzen badu kategoria jakin baterako hautagaitza. Kasu horretan, kide guztiek aho batez hartu beharko dute erabakia.

Epaimahaiaren balorazioaren emaitza akta batean jaso beharko da. Akta horretan, egindako balorazioaren emaitza modu arrazoituan zehaztuko da, eta hautagaitza bakoitzak kategoria desberdinetan lortutako balorazioa islatu beharko da.

Espedientearen instruktoreak, hautagaitzen balorazioa jasotzen duen epaimahaiaren balorazio-akta ikusita, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio ebazteko eskumena duen organoari. Ebazpen-proposamena parte-hartzaileen merezimenduetan oinarrituta arrazoituko da, epaimahaiak balioetsitako balorazioaren arabera.

Epaimahaiak sariak eman gabe uztea proposatu ahal izango du, baldin eta hautagaitzek ez dituztela saria jasotzeko behar diren kalitate-baldintzak betetzen uste badu, eta epaimahaiak hautagaitzarik proposatu ez badu.

12. artikulua: Sariak ematea.

Kategorien araberako sariak emateko ebazpena osoko bilkuraren erabaki bidez hartuko da.

Emakida-ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, interesdunei jakinaraziko zaie, eta udalaren egoitza elektronikoan eta intranetean argitaratuko da. Ebazpen horren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, jurisdikzio hori arautzen duen legean aurreikusitako moduan eta epeetan.

13. artikulua: Sariak emateko ekitaldia.

Sariak emateko ebazpena eman ondoren, kategoria desberdinetan saritutako hautagaitzak aintzatesteko ekitaldi publiko bat egingo da.

Aintzatespen-ekitaldi publikoan Alkatea edo hark eskuordetutako zinegotzia izango da buru, eta, bertan, oroitzapenezko sari/elementuren bat eman ahal izango da.

Saritutako pertsonak bertan egon beharko dira saria jasotzeko orduan (pertsonalki edo ordezkaritza eskuordetutako pertsona, ahalmen hori behar bezala egiaztatuta).

Oroitzapenezko elementua entregatzeak ez du ekarriko gastu-xedapena eta hurrengo aurrekontu-faseak izapidetzea eta onartzea. Nolanahi ere, Udalak horiek eskuratzeko, administrazio-kontratazioari buruzko araudia bete beharko da.

Azken xedapena: Argitaratzea eta indarrean jartzea.

Osoko bilkurak hasierako onespena eman ondoren, araudi hau jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuz.

Ezarritako epearen barruan aurkezten diren erreklamazioak eta iradokizunak ebatzi ondoren, osoko bilkurak behin betiko onartuko du araudia.

Hasierako erabakiaren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betiko onartukotzat joko da, eta ez da osoko bilkuraren beste erabakirik hartu beharko.

Araudi hau indarrean jarriko da testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan adierazitako epea igaro ondoren.

REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DE LAS DISTINCIONES "JOLIN SARIAK".

Exposición de motivos:

La normativa de régimen local señala que las Corporaciones Locales podrán acordar la creación de medallas, emblemas, condecoraciones u otros distintivos honoríficos, a fin de premiar especiales merecimientos, beneficios señalados o servicios extraordinarios a las personas mecedoras de los mismos. A tal fin las mismas refieren que los requisitos y trámites necesarios para la concesión de los honores y distinciones deben determinarse en un Reglamento especial a aprobar por el Pleno del Ayuntamiento, siendo también competencia del mismo la concesión de medallas, emblemas, condecoraciones u otros distintivos honoríficos en el ámbito municipal.

Al respecto el Ayuntamiento de Barakaldo en ejercicio de sus competencias para la promoción cultural está interesado en promover la distinción y el reconocimiento social en diversos ámbitos, todo ello a fin de destacar singularmente la aportación de la conducta u actividades de personas, empresas, sociedades o colectivos que hubiesen contribuido de forma destacable en beneficio de la Anteiglesia de Barakaldo, con el propósito de promover el desarrollo en ámbitos con notable influencia como lo constituyen el social, el deportivo, el cultural ,del euskera y el desarrollo sostenible del municipio. Ello motivado porque los ámbitos señalados constituyen espacios habituales de desarrollo de la ciudadanía, con una elocuente incidencia en el enriquecimiento de la sociedad de cualquier municipio como es en este caso la de Barakaldo.

Por lo que en definitiva, se estima necesario establecer una regulación por medio de una norma con naturaleza reglamentaria de las distinciones específicas a través de la concesión de distinciones en diversas categorías con incidencia en el reconocimiento social. Reconocimientos que en todo caso se vinculan directamente a la competencia municipal señalada en las normas de régimen local de ordenación, promoción de la cultura y de las actividades culturales del propio municipio, por lo que se estima el Ayuntamiento esta actuando dentro del ámbito de sus esferas propias de competencia.

En definitiva, nos encontramos ante actividades que no se encuentran reguladas en la Ley General de Subvenciones, pues en virtud de la misma las distinciones contenidas en el Reglamento no les resulta de aplicación su regulación.

En cualquier caso, el régimen de su concesión deberá ajustarse a los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, por lo que se hace necesario establecer una regulación conforme a los principios previstos en el articulo 129.1 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Publicas, de acuerdo con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.

Articulo 1: Objeto de las distinciones.

Es objeto del presente Reglamento la regulación de conformidad con el Reglamento Orgánico y de Participación Ciudadana de la Anteiglesia de Barakaldo y el Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales de distinciones honoríficas vinculadas a los ámbitos Social, deportivo, cultural, del mundo del euskera, del Desarrollo Sostenible, así como una distinción especial a denominar como Premio Jolin, las cuales se categorizan en los siguientes términos:

En el **ámbito social ,** el reconocimiento está destinado a todas aquellas personas físicas, personas jurídicas, entidades o colectivos que hayan desarrollado en la anualidad anterior o a lo largo de años anteriores a través de una trayectoria continuada, una reconocida labor a favor del bienestar social y la calidad de vida de las personas, logrando así una sociedad, más feminista, más cohesionada, más integradora, más justa, más igualitaria y más inclusiva, así como que hayan contribuido a la generación de nuevos valores de ciudadanía. Igualmente tiene cabida en esta categoría el reconocimiento a las contribuciones realizadas en materia educadora por parte de aquellos centros, asociaciones u otras entidades que trabajan en Barakaldo.

En el ámbito **Kirola,** está destinado a todas aquellas personas físicas, personas jurídicas, entidades o colectivos que en la anualidad anterior o a lo largo de años anteriores a través de una trayectoria continuada, hayan destacado en el ámbito del deporte en todas sus manifestaciones.

En el ámbito **Kultura**, está destinado a todas aquellas personas físicas, personas jurídicas, entidades o colectivos que en la anualidad anterior, o en los años anteriores a través de una trayectoria continuada, hayan destacado en el ámbito de la cultura en todas sus manifestaciones.

En la ámbito **Euskera**, está destinado a aquellas personas físicas o jurídicas, entidades o colectivos que en la anualidad anterior, o en los años anteriores a través de una trayectoria continuada, se hayan destacado en el desarrollo de actividades de apoyo, promoción o difusión del uso del euskera

En el ámbito **Desarrollo Sostenible**, está destinado a todas aquellas personas, personas jurídicas, entidades o colectivos que hayan promovido en el año anterior o en los años anteriores a través de una trayectoria continuada, el desarrollo sostenible de la ciudad. La distinción reconocerá las aportaciones desde múltiples áreas, y de una manera destacada en el campo de la sostenibilidad, accesibilidad, conservación del patrimonio, generación de empleo y mejora de la calidad de vida en la ciudad. Asimismo, podrán optar aquellas empresas que combinan con éxito la viabilidad económica de sus negocios con la protección del medio ambiente.

La distinción **PREMIO JOLIN**, trata de reconocer la labor de todas aquellas personas físicas, personas jurídicas o instituciones que durante una trayectoria continuada, se considere que han sido embajador/as ejemplares de nuestra ciudad, haciendo gala de su amor por la ciudad y proyectado una imagen positiva de Barakaldo en el mundo.

Todas las distinciones referidas tendrán el carácter meramente honorífico, de distinción municipal en función de los merecimientos de los/las galardonados/as.

No están comprendidas en el objeto de este Reglamento las distinciones, y reconocimientos honoríficos incluidos en el ámbito de aplicación del Reglamento de Honores, distinciones y de ceremonial del Ayuntamiento de Barakaldo.

Articulo 2: Régimen jurídico de las distinciones.

Las distinciones señalados en las categorías señaladas se regirán por lo dispuesto en el presente reglamento, en la Ley 7/1985 de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, en la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Publicas, en el Reglamento Orgánico y de Participación Ciudadana de la Anteiglesia de Barakaldo, en el Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, en las bases reguladoras de las correspondientes convocatorias, así como en las restantes normas de derecho administrativo y en su defecto por las normas de derecho privado.

Articulo 3: Naturaleza de las distinciones.

Todas las distinciones a que hace referencia este Reglamento, tendrán el carácter exclusivamente honorífico sin que por lo tanto otorguen ningún derecho distinto al regulado en este Reglamento ni tampoco atribución alguna de carácter económico.

El carácter meramente honorífico no conllevara ninguna renumeración económica, por lo que se considera su naturaleza no subvencional, estando al margen del ámbito de actuación regulado por la Ley General de Subvenciones, todo ello al margen de poder acompañar la concesión del reconocimiento con la entrega de un elemento/galardón conmemorativo.

Articulo 4: Confidencialidad y protección de datos.

En los procedimientos de concesión de distinciones en que resulten afectadas personas físicas, el tratamiento de los datos que se realice por los órganos gestores deberá garantizar el cumplimiento de lo establecido en materia de protección de datos de carácter personal según la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

Articulo 5: Procedimiento de otorgamiento de las distinciones.

La concesión de las distinciones habrá de ser acordada previo expediente tramitado al efecto, en orden a la acreditación de los merecimientos pertinentes.

A tal efecto, con carácter previo al otorgamiento de las distinciones deberá aprobarse y ser objeto de tramitación la correspondiente convocatoria, en la cual se detallaran específicamente las concretas bases de participación reguladoras de la misma.

Las convocatorias adecuaran su procedimiento de concesión a los principios de publicidad, transparencia, merito y capacidad de los/las participantes.

La concesión de las distinciones en cada una de las diferentes modalidades se efectuara en régimen de concurrencia competitiva.

Artículo 6: Inicio del expediente.

El inicio del expediente se efectuara mediante la respectiva convocatoria que será realizada de forma unitaria para todas o algunas de las distintas modalidades de distinción.

La convocatoria será aprobada mediante resolución de Alcaldía, en la cual se dispondrá el inicio del expediente de concesión, pudiendo ser objeto de delegación la competencia de inicio del expediente en otros órganos del gobierno municipal.

De manera excepcional el órgano que inicie el expediente podrá considerar no convocar la distinción en alguna de sus diferentes categorías, iniciándose y siendo objeto de instrucción y resolución en ese caso exclusivamente para el resto de categorías.

Aquellas áreas municipales que por razón de materia competencial, pudieran estar implicadas por el ámbito objeto de las distinciones (Art.1), deberán ser consultadas y tenidas en cuenta por el área gestora previo a la redacción del Decreto de convocatoria. Deberán así incorporar sus aportaciones técnicas a la redacción de dichas bases.

Artículo 7: Sujetos y requisitos de los participantes.

Podrán participar en las convocatorias para la concesión de las distinciones en cada de sus diferentes categorías, las personas físicas o jurídicas o agrupaciones de personas físicas o jurídicas que cumplan los requisitos establecidos en cada una de las respectivas convocatorias.

En caso de que participen menores de edad no emancipados/as, será requisito de participación la autorización previa de padre, madre o tutor legal.

Así mismo cualquier persona física o jurídica podrá proponer el reconocimiento a favor de una persona física, persona jurídica, entidad o colectivo, quedando excluida la posibilidad de presentación a sus propios representantes, cargos directivos o miembros de la entidad o institución, así como el proponerse así mismo.

Por su parte el jurado podrá proponer, siempre y cuando cuente para ello con la unanimidad de sus miembros integrantes, una candidatura en el supuesto de que no se hubiera presentado ninguna en una determinada categoría, o en el supuesto de que tras la deliberación estimen que las candidaturas presentadas no reúnen los méritos suficientes en la concreta categoría en que estén propuestos/tas.

En todo caso, las personas participantes estarán obligadas a facilitar cuantas actuaciones de comprobación de sus meritos se efectúen por el Ayuntamiento de Barakaldo.

Artículo 8: Contenido de las convocatorias.

La convocatoria concretara en cuanto su contenido cuantos aspectos resulten necesarios para la presentación de candidaturas de las distinciones en sus diferentes modalidades por las personas aspirantes, así como cuantos aspectos resulten necesarios para valorar las distintas candidaturas presentadas en las diferentes categorías y cuantos aspectos resulten necesarios para la instrucción del expediente hasta su resolución mediante la concesión de las distinciones en cada una de las diferentes categorías.

En concreto cada convocatoria contendrá como mínimo las siguientes referencias:

1. Referencia de la Administración convocante.

2. Indicación del área gestora y del instructor del expediente.
3. Referencia a las distintas categorías de las distinciones que sean objeto de convocatoria.
4. Requisitos que deben cumplir los/as participantes.
5. Composición del jurado.
6. Criterios de valoración orientativos de cada una de las diferentes categorías.
7. Plazo y forma de presentación de las solicitudes de participación de las candidaturas.
8. Documentación exigible para presentar por las candidaturas en cada una de las categorías.
9. Cualquier otro documento acreditativo de merito que pueda ser objeto de valoración en cada una de las candidaturas a los efectos de su concesión.
10. Referencia al órgano competente para la resolución del procedimiento mediante el acto administrativo de concesión de las distinciones en cada una de sus categorías.
11. Cualquier otro aspecto que se estime conveniente en la convocatoria en cada categoría.

Artículo 9: Publicidad de las convocatorias.

La convocatoria se publicara en el Boletín Oficial de Bizkaia, Pagina Web, sede electrónica, así como en un diario de los de mayor circulación en el Territorio Histórico.

El plazo de presentación de solicitudes o candidaturas de participación se iniciara a partir del día siguiente al de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

El plazo de presentación de solicitudes será el establecido en la correspondiente convocatoria.

Artículo 10: Presentación de candidaturas.

Las solicitudes de participación o candidaturas deberán formalizarse en el caso de los sujetos obligados a relacionarse electrónicamente según el artículo 14.2 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Publicas, el trámite deberá realizarse a través de medios electrónicos. En el caso de personas no obligadas a relacionarse electrónicamente podrán realizar la presentación tanto electrónicamente como presencialmente en el Servicio de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Barakaldo y en las formas establecidas en el artículo 16.4 de la referida Ley.

Las proposiciones deberán contener una memoria explicativa detallada en la cual se expliciten todos los meritos que el/la proponente estime conveniente para optar a la categoría concreta en la que se presente.

La persona proponente no podrá presentar la misma candidatura para más de una categoría, en cuyo caso se excluirán todas las propuestas presentadas por la persona proponente que incumplan este requisito.

Si las solicitudes de participación o la presentación de candidaturas no reuniesen los requisitos establecidos en la convocatoria o la documentación exigida, se requerirá la persona interesada para que en el plazo improbable de 10 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la notificación del requerimiento que se realice por la persona instructora del expediente, para que subsane o aporte los documentos necesarios, con la advertencia de que en caso contrario se entenderá que desiste de su solicitud, previa resolución al efecto la cual deberá ser objeto de notificación a la persona interesada.

Las personas físicas no podrán proponer su propia candidatura para categoría alguna ni las personas representantes legales de cualquier persona jurídica la de aquella a que representen.

Artículo 11: Valoración de las candidaturas.

En la resolución que determine el inicio del expediente mediante la convocatoria de las distinciones se determinara la composición del jurado que valore las candidaturas de las distinciones para todas sus modalidades, mediante la identificación concreta de las personas que lo integran.

El jurado esta compuesto con una presidencia, cuatro vocales y una secretaría del mismo con voz pero sin voto.

La **Presidencia** será ejercida por la Alcalde/sa o la Concejalía en quien delegue la cual tendrá voto de calidad en caso de empate.

Las **Vocalías** estarán integradas por técnico/as o profesionales de reconocido prestigio experto/a en la materia objeto de los premios.

La **Secretaría** será ejercida por un/a funcionario/a de la corporación.

Las sesiones del jurado se consideraran válidas y contaran con quorum suficiente siempre y cuando asistan a la correspondiente convocatoria que formulará la presidencia la mayoría de sus miembros sin computar a estos efectos la secretaría, y siempre y cuando estén presentes quienes ostenten presidencia y secretaría.

Las personas miembros del jurado deberán abstenerse de intervenir cuando en ellos/as concurra alguna de las causas de abstención previstas en la Ley 40/2015 de 1 de octubre. Así mismo las personas interesadas podrán promover la recusación de los miembros del jurado en los supuestos previstos de conformidad con lo establecido en la referida ley.

El jurado tomará sus decisiones por la mayoría simple de las personas miembros que lo integran según el reglamento, con la excepción del supuesto de que no se hubiera presentado ninguna candidatura en una determinada categoría y sea el mismo el que proponga candidatura para una determinada categoría, siendo en este caso necesario la unanimidad de sus miembros integrantes.

El resultado de la valoración del jurado deberá plasmarse en un acta, en la cual se concrete de manera motivada el resultado de la valoración efectuada, debiendo reflejar la valoración obtenida por cada una de las candidaturas en sus diferentes categorías.

La persona instructora del expediente a la vista del acta de valoración del jurado que recoge la valoración de las candidaturas, elevara una propuesta de resolución al órgano competente para resolver. La propuesta de resolución estará motivada en base a los méritos de las personas participantes según la valoración apreciada por el jurado.

El jurado podrá proponer declarar desiertas las distinciones en sus diferentes categorías si estimase que las diferentes candidaturas no reúnen los requisitos de calidad necesarios para hacerse merecedor de su concesión y en el supuesto de que el jurado tampoco hubiese propuesto ninguna candidatura.

Artículo 12: Concesión de las distinciones.

La resolución de concesión de las distinciones en sus diferentes categorías será adoptada por acuerdo del Pleno.

La resolución de concesión la cual pondrá fin a la vía administrativa, se notificara a las personas interesadas, se publicara en la sede electrónica e intranet municipal. Contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes ante el mismo órgano que ha dictado la resolución o bien ser objeto de recurso directamente ante la jurisdicción contencioso administrativa en la forma y plazos previstos en la ley reguladora de dicha jurisdicción.

Artículo 13: Acto de entrega de las distinciones.

Se realizara con posterioridad a la resolución de concesión un acto público de reconocimiento de las candidaturas galardonadas en las diferentes categorías objeto de distinción.

El acto público de reconocimiento será presidido por la Alcaldía o concejal/a en quien delegue y en el mismo podrá hacerse entrega de algún galardón/elemento conmemorativo.

Será necesario que las personas galardonadas estén presentes a la hora de recoger la distinción bien personalmente o bien por haber delegado esta facultad en una persona debidamente acreditada en cuanto a su representación.

La entrega del elemento conmemorativo no conllevará la tramitación y aprobación de disposición de gasto y de las siguientes fases presupuestarias. En todo caso la adquisición de las mismas por parte del Ayuntamiento se someterá a la normativa sobre contratación administrativa.

Disposición final: Publicación y entrada en vigor.

El presente reglamento, tras su aprobación inicial por el Pleno del Ayuntamiento será objeto de información pública por plazo de treinta días hábiles, mediante su anuncio en el tablón de anuncios de la sede electrónica y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Una vez resueltas las reclamaciones y sugerencias que en su caso pudieran presentarse dentro del plazo establecido, el Pleno procederá a su aprobación definitiva.

En el caso de que no se presentasen reclamaciones al acuerdo inicial este se entenderá definitivamente adoptado sin necesidad de nuevo acuerdo plenario.

El presente Reglamento entrara en vigor a partir del día siguiente al de la publicación de su texto integro en el Boletín Oficial de Bizkaia y una vez transcurrido el plazo señalado en el articulo 65.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril reguladora de las bases de régimen local.